



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2015-09-08

BILERA ZENBAKIA: 23

ORDUA ETA LEKUA: Udaletxean, arratsaldeko 19,00tan

PARTEHARTZAILEAK: 5 emakumezko eta gizonezko 1.

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

FESTETAKO BOKATA JANA : Gehiena antolatuta dago iada. Joan den urtean baino kantitate gutxiago jartzea adostu da. Beti bezela, festetako larunbat iluntzean egingo da eta jasotzen den dirua, beharreen dauden herritarrentzat bideratuko da.

DENBORAREN BANKUA : Gaia landu behar zuen lantaldeko kidea ez da bilerara etorri, beraz, urrengo bilerarako gelditzen da.

TIPI-TAPA : balorazioa oso ona da eta jarraitzeko asmoa dago aurten ere. Diru laguntza jasotzen badugu, ekintza honekin lotzea erabaki da. Asmoa da hitzaldiren bat antolatu edo biltzen direnei beroketa ariketak egiten lagunduko dien norbait ekartzea...

DESFIBRILADOREA :Dena prest dago formakuntza egiteko. Hasera batean bi saio aurreikusten dira, bata goizez eta bestea arratsaldez, Urriaren haseran. Datak zehazten direnean herritarrei jakinaraziko zaie.

BERDINTASUNA : Gai hau herri mailan lantzeko 1000€ daude erabilgarri. Azaroaren 25aren inguruan zerbait antolatzea proposatzen da taldean. Urriko lan taldearen bileran zehaztuko da zer egin.

2016ko AURREKONTUAK : datorren urteari begira, aurrekontuak lantzen hasiko gara laxter.


ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?

HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera,Urriaren 20ean egingo dugu, asteartea arratsaldeko 7tan Udaletxean.

Gai ordena:

1. Denboraren bankua
2. Festen balorazioa
3. Berdinatasunaren gaia
4. Aurrekontuak lantzen hasi



175 ANDO EKINEZ EGINA